

## Felix Iñurrategi: «Erasoa egitean azkarrak izan behar dugu»

**P**asatu den igandean, hilak 17, Felix Iñurrategi eta Juanito Oartzabal Pakistanerantz abiatu ziren eta hiru egun beranduago Alberto Iñurrategi eta Kike de Pablo. Helburua, K2 gailurra, munduko gailurrik gaitzena ei dena. Ea, bada, San Fermin egunerako menderatua dagoen.

**ARGIA.** *Gailurrarekin iaz buis egin ondoren, aurten bai?*

**FELIX IÑURRATEGI.** Beti bezala goaz, baikor eta animatuta. Dena den, aurten lasaiago goaz. Iaz antolakuntza lanak oso bixi eginak izan ziren eta nekata iritsi ginen mendira. Orain lan guztiak lauron artean banatu ditugu eta bakoitzak apur bat egin ez oso modu samurrean antolatatu dugu guztia. Areago, badugu ezer egin ez dugula sentipen hori. Nik

uste dut izpiritu hau espedizioan zehar mentenduko dela, dagoeneko badugu esperientzia apur bat eta lana ondo banatuz gero emaitza onak izango direla uste dut. Dena den, guztia ez dago gure esku, noski. Eguraldiak ere badu zeresanik, eta K2-k badu mikroklima berezia, Alpeetan Cervinoren antzekoa, asko baldintzatuko gaituena. Oso egun on gutxi izaten dira eta, beraz, erasoa egitean azkarrak izan beharko dugu. Iaz baldintza onak egokituz ge-



«Dagoeneko badugu esperientzia apur bat eta lana ongi banatuz gero emaitza onak izango ditugula uste dut».

ro lortuko genukeen.

**A.** *Aretxabaletako jendea zineten denak iaz. Aurten esperientzia handiagoko jendearekin zoazte. Gailurra gehiago segurtatzeko edo zer?*

**F.I.** Hori baino askoz samurragoa da. Juanitok aurtengorako zeukan baimena, berarekin joatea proposatu zigun eta guk onartu egin genuen. Kitto.

**A.** *Elitekoa izateak atea zabaltzen ditu antza. Ez duzue babesle zerrenda makala topatu!*

**F.I.** Espedizioa oso arina da eta aurrekontua 8,5 milioi pezetakoa, beraz zerrenda luzea bai baina bakoitzak diru kopuru txikiagoa jartzeko. Zerrenda horren inguruan gezur ugari entzuten dira. Esan izan da Albertok eta biok 20 milioi pezeta kobratuko ditugula espedizio honegatik. Zenbat lelokeria!

**A.** *Intsumiso moduan, biru hilabeteko espetxe zigorra ere jaso duzu. Nola geratu da hori?*

**F.I.** Fiskalak errekurtsua jarri zuen eta ez dakit nola dagoen kontua. Dena den, itzuli arte behintzat jakiteko gogorik ere ez.

### ESPEDIZIOAREN NONDIK-NORAKOAK

## K2 94 euskal espedizioa

**PARTAIDEAK:** Juanito Oartzabal arabarra (besteak beste Cho Oyu, Everest, Nanga Parbat eta Gasherbrum II egin ditu); Kike de Pablo (Nanga Parbat eta Makalu...) eta Felix eta Alberto Iñurrategi anaiak (Pumori, Makalu, Everest...).

**IGOERA:** Pakistanetik, hego-hegoekialdeko ertzetik. Abruzzoen bide arruntaren ezkerrean eta hura baino apur bat zailagoa den bat egingo dute.

**AURREKONTUA:** 8,5 milioi pezeta (369.000 libera inguru).

**BABESLEAK:** BBK, Vital



Espedizio honetan parte hartuko duten lau mendizaleak.

Kutxa, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako diputazioak, Astore - Vessant, Eusko Jaurlaritz

eta EITB.

**GAILURRARI ERASOA:** Ekainaren 24 eta uztailaren 7 bitartean gutxi gora-behera.